

Ergoiena

Aurkibidea

Udalerria: Ergoiena

Sarrera



Ergoiena Sakana eskualdeko ibar txiki bat da eta Lizarraga (hiriburua), Dorrao eta Unanu herriek osatzen dute. Basoz eta belardiz inguraturik dago. Etxarri Aranatz, Uharte Arakil eta Arbizurekin egiten du muga iparraldean eta Urbasa mendilerroarekin ekialde eta mendebaldean. Argazkian Unanuko herria ageri da.

- **Biztanleak:** 450
- **Euskaldunak:** %88,31

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **13**
- Zintak: **9**

- Pasarteak: **7**
- Transkribatutakoak: **3**
- Audioak: **7**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Ez dago sinesterik zenbat kanbiatu den!
- Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

Hizlariak

Genoveva Igoa (1948)

Maria Antonia Igoa (1944)

Isidora Lasa Elso (1922)

Lizarragan jaioa 1922an. Gurasoak ere bertakoak zituen.

Yolanda Lizarraga Mozo (1963)

Unanun jaioa 1963an. Gurasoak ere, biak unanuarrek.
[Ama](#)rekin batera egin zion grabazioa Koldo Artolak 2000. urtean.

Lorenza Lizarraga Senar (1924)

Dorraon (Ergoiena) jaioa 1924an. Gurasoak ere bertakoak zituen. Eguberrietako ohituren inguruan hitz egiten du [Juanita Lizarraga](#)rekin batera.

Juanita Lizarraga Yaben (1923)

Dorraon (Ergoienan) jaioa 1923an. Aita Dorraokoa bertakoa zuen eta ama, berriz, Zuhatzukoa (Arakil).

Ines Merzero Lizarraga (1930)



Unanuko Mihiminenea baserrian jaio zen. Gurasoak ere unanuarrak ziren. Bost senide, aitona-amonak, osaba eta izeba bizi ziren etxean. Unanuko eskolan zortzi urte zituen arte ibili ondoren, bi urtez Iruñeko moja eskolan aritu zen. Gaztetan Iruñean eta Urretxun josten ikasten ibili ostean, bere etxean ikasleak izan zituen. Garai hartan, baserri lana eta patronajea uztartuz aritu zen Ines, 29 urterekin Ataunera ezkondu zen arte.

Teodora Mozo Lizarraga (1925)

Unanun jaioa 1925ean. Gurasoak ere bertakoak zituen. [Yolanda](#) alabarekin batera egin zion grabazioa Koldo Artolak 2000. urtean.



Patxi Satrustegi Goldarazena (1937)



Bitori Senar Andueza (1942)

Marta Senar Berastegi

Dolores Zaro (1943)

Pedro Zaro (1947)

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Lanbideak

1.1. Lihoaren inguruko lanak

- **Hizlaria(k)**: Lizarraga Yaben, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: ERG-008/001

- **Iraupena:** 0:03:53. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:53
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Lihoa (linua) eta ehuleak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena:** Lihoaren inguruko lanak. Lihoaren lore urdina jasotzen zenetik ehuleari haria eraman arteko prozesua.

Transkripzioa

- Kontatzen ahal duzu pixkat?

- Kontatu? pues e... esan biar duzut: ori ereitten tzan, e... últimos de setiembre, bei, últimos de setiembre, eta, e... akatziak o urriyak -urriya da, guk urriya satou setienbrei- jarri bizuen ya, jeiyo, bi orriten; geo, jei-, jeiyo tzen tzan? zaborra atratzen tzakiyon dena ondo, zaborra ta, uzten tzan garrbi-garbi-garbia! ta atatzen tzuen, loria, urdin bet, oso lore politta atatzen floria, flore urdin polli bet atatzen tzuen. Eta gio eitten zakiyon, flore ura botatzen zakiyon berrie? aziya, eta ya pixket eitten tzakiyon garäiyan aziy ura? eitten giñuen atra, zeñetati; zeñetatë atatzen giñuen? lotzen giñuen ee... paxotan? eta ematen giñuen ubeldia. Ubeldian putzu aundi bat eoten giñuen? paatzen giñozkoon e... arriyek geiñen? t'egoten tzan, bedratzi eun ta bedratzi e... gou, utsin, sartuta. Geo atatzen giñuen utseti? ta paatzen giñuen iruzkiyen, eoten tzan, sekaten; sekaten tzan ura? eta sekaten tzan garaiyen? egun (y)onnaeki? bazian, egurreko, esaten zooruen garbak, iru... iru ojekuek? ta sartzen tza-, jno, miento! lendaixkuan eitten tzan, maz batekin jo-ta, kaskal ura kendu, kaskal ura dena jentzen zakiyon? mazaekiñ, e? dena joka. Ta gëo, jentzen tzakiyon gañien kaskal ura... e, e, orrekiñ? e... mazaeki(n)? pasatzen tzan, iru oro eoten tzian? ba, orixe: trakata-tra! trakatra-tra! trakata-tra! geiltzen tzan, lia bekeleixen, launnnn-laun-laun-laun-launa, ango... eitten tzuen e... ariy ura. Geo pasatzen tzan, katxarro bat eoten tzan olixe anka sartuta, como unas e... púas, burniskuak? an eitten tzan, orrazi, orrazi, te geiltzen tzan fiiiin-fin-fin-fin-fiña, fiña, osso fiña! geiltzen tzan biar seta bekelaxe? xeda bekeläxe. Eta geo, makil bet zan? makill aundi bet? da makill aundiy értan? ee... e lotzen tzakiyon e... katxarro ura, ille moduko oi? eta e, sartzen giñuen besazpiyen? ta orixe eitten tzakiyon a... alako katxarro (b)ati bueltak emannnda, bueltak emanda, bueltak emanda, bueltak ema(n)? eitten zan e... bera ariya, ariya. Geo, ariy ure eitten tzan garäiyan? eitten giñuzkien te... pillotak; an, katxarro at egurrexkua? e... madejak ee, eitten tzianak? eta, madejak jartzen tzian-da, eitten tzan, e pillot eittekin madejak; ta madejak eitten tzian gareiyan, bi e... alde pati, lotzen tzia(n)? eta eitten tzia(n), arrixko... -orduen arrixkuak giñazkan, guk, beste atzuk zazkuen de zink- lixuba, lixu berriya, eitten tzana, arropa, dena... egosi ta, e... dena, ta an eitten tzan egosi. An eitten tzan egosi? botatze(n) zakiyon utsa, garbiya? eta... txulo txiki bat ordun, zer itsu berriy arrek? ta, an, kredo errezatzen ziñuen? eta, ya, kredo errezatuta, akaatzen tzan garäien kred ura? ya egosik zegon e... ura, lixib ura egosik zegon. Pues, geo? eitten giñuen fan e... labaderua? aundi-aundi-aundiya jo ta garbittu? eta eitten tzan sekatu, iruzkiyan, e? iruzkiyän. Eta geo, eitten tzian, pillotak? eta ematen giñuen a hacer. Etxarrin eoten tzan e... tejedorëa, bai, tejedore...

- Ehuntzalea?

- Be, auntzalia, bei, auntzalia; an eitten tzuen e... auntzalia zan, eta an eitten tzuke ee... tela? o eitten tzittüen e... olako... beste gañen metruat o... zeotzer e... de ochenta centímetros o... metrua? da eitten tzuen tela, ta geo eitten zittuen mediek, e? azken josi ta ya está! eta segun nola eitten

ziñuen zuk, ola lixtu bat, emannnda... ariyäi, zenbatennnes geixaö ibiltzen
ziñuen? eitten tzan, ariyä, fiñaö! ta aria fiñaö egiten zanezin? pues media
ayek izaten tzian, e mia(o)kuek, eitten balen bazien mantak arek? nola
zien e... ura, ori? pues izain tzian meindiriek e... latzak! latzak, gogorrak!...
gutxi badot oainikan ee... meindiriek e, mises, jo! menudas sábanas!...

2. Baserria

2.1. Basaloe nola egiten zen

- **Hizlaria(k)**: Lizarraga Yaben, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: ERG-008/002
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 00:03:53. **Bukatu**: 00:06:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Artoa
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Basaloe zer zen eta nola egiten zen.

Transkripzioa

- En cambio...
- Kontatu zer den basalo hori.
- Basalua? pues basalua eitten tzan e, con e... harina y... con harina de maíz? ogiya eitten tzan bekelaixe, eta sartzen tzan labia? ogiyeikin batia, eta nola baitzen tzan e, lodiya? pues biar izeten tzuen, ogiye pekeliixe? e... arrek e, egost-, e... erretzen, labien, be denbora; pues iguäl e... iru ordu kuarto? o... garäi beteko labiei. Eta, atetzen tzian, aber nolabit e, aberr eiñik doin, ta atetzen tzuen e pal atekin kanpoa? ta jotzen zooruen? da, pon-pon-pon eitten baden bazuen? oindiken denbora geixago egon bizuen labie, eoten tzuen beste bosten bat minutos o lo que sea? atetzen tzuen da, pan-pan-pan... kanpoa; ya está. En cambio taluk eitten dia, al momento; jartzen da talaburneki? botatzen dakiyo masa? eta e... a... a los e... pocos segundos ein da, oi e.
- Talaburniya, e?
- Bai.
- Eta zenbat pixatzen zuen basalo horrek?
- Pues e, basalu orrek e iguel e pixatuko tzuen? e... ordubien ez zian e... etzian pixubek e... kilokuek? izeten tzian e... de libras, pixuek izeten tzian de libras? eta ezti pa nik e, iru... libera o, lau libera o, ortaa...
- (Migel Razkin, berriemailearen senarra:) Xegun nola eitten tzen, batzuk aundixaö beste atzuk txikixaö. Eztaki nik, be(i); batzuk aundixaö beste atzuk txikixau, ola...
- Zenbat egunetako zen?
- Pues yo qué sé... arrek e, bi egun t'erdí? ola kuntatzen tzugun... bei; bei, en cambio au te, ente-, ta obe eitten tzan, gotzo-gotzo-gotzoa? kontserbatzen tzan, tierno, e? bei. Kutxa bat egoten ginuen? kutxa artan jartzen giñuen? meindre (b)at eon, eskua botatzen giñon e geñetik? eta egoten zian e... bei, konkurso ona eitten tzan.

3. Iritziak

3.1. Inoizko bizimoduaz

- **Hizlaria(k)**: Lasa Elso, Isidora
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: ERG-009/001
- **Iraupena**: 0:08:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:08:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Garai bateko bizimodua nolakoa zen Ergoienan. Goserik ez, baina behar asko.

Transkripzioa

- Bizimodu txarra eman giñuen, bizimodu txarra emen, geixuok, beti pobre, erri, erri pobrie zan au, erri pobrie ta, emen bezeleixe gu denok.

- Bueno, baina goseak ez zarete egon...

- Bai... gosia prezisamente ez beia... mucha necesidad de muchas cosas, pasatu giñuzkien, bei; pobreza yon giñuen emen oso, pobreza aundiya iondu zan emen... bei, ta geo, gerra ondorien dee? gorriyek ikus giñuzkien, razionamentua ibiltzen giñen emen dee, ta oleixko, ogi pixkat igual ematen tzugun, ura basalu dee, basalu ematen e... garë ori, meiza... meiza-iriñaekin da igual ematen tzugun ura, txarra.

- Baxaldu esan duzu?

- Basalue zan, beia, basalu otsain giñoa(n), meizaan e, meizan iriñaekin iñikekua? basalu, basalu? basalu... otsaitten giñoa(n), ura jate(n), ura ematen tzuen. Ta geo oliyua ta dee? etzugun ematen, eta gauze asko etzuzkigun ematen, bea guk? nik yoten nittuen itzu atzuk, itzu atzuk Donostiñ e, denda komestibleaki... beia, aikiñ e oso ongi moldatzen giñen, aik e gui gauzek bieltzen zugun, bieltzen zuzkigun azukure, oliyo... e gio... e txitxiyo, ta len-, ori... gauz asko bieltzen tzuzkigun, arro(z) da, olako gauz ok denak bieltzen tzuzkigun e... itzuek, Donostiti, Donostin razionamentu(b)a... aik nola ee partitzen tzuen? aik moldatzen tzia(n)! aik e tranpak itten zittuen... tranpak itten zozkoren ai(k)'re! Esta-, Esta(d)uko jendiek listuek izanko zian beia, aik e listek... tranpak itten zozkor(r)an!... Ta ni an yoten nitzen serbitzen, gaztetan-da, quartzen giñen, nolä ibiltzen tzian beak? ze in be giñoan. De guk e kontu at iten giñuen ze, ze... ze txandrioik itten zittuen... Ta, oleixe!... ta emen? pues, pobre bizi, pobre bizitze giñen, oso pobre! ta geo fabrike auk et'asi zian? d'orduen pixkat ee jendia asi zan ee, renobatzen. Ta guai, emen ongi ioten da jendia, aungi dao, bai, emen jendia; ongi guai.

- Orain bai, ezta?

- Bai, guai, beia aungi!... bea emen ee... pobre bizi giñen! oso pobre izaniyek ga emen, tierrotan, emen, den ontan, inguru ontan deniän. Geo, Altsasö, Altsasu ta oik, beti obeki, gu peño obeki, beti... ze orretan? or fabrikaziyo o ola? ta gu peño obeki ikusten tzia(n), t'emen kontornu ontan asi Etxarri, Arbizu, Lakuntza, Uberte... auk iru erriyok, eta auten denoten? pobre. Geo atzea beix Irurzundi, or? atzea beix, obeki, kaxeri-, baxerriyek eta dee abeatsao izaten tzian, fondosoago o... leurrek eta obiek eta, bizitzen tzian obeki. Ya au tzan oso pobrie, oso pobrie, bei... t'oleixe!

- Gero...

- Bäfte... ze esan biattuzun esan, nik kontestatuko duzut, ze...

- Ez, ez, ongi, ongi ari zara... bai, atera bezala...

- Geo? pues eman giñuen bizin bet, gaztie, gu gaztie, ba eskol baekuek, exkol baekuek, guk. Ni aneiye ioten nuen, aneiya, ta ura beti exkolaa, ta ni

aittaaki, o... orbeletaa o yurretaa, o sorua lania, gaztie nitzela ta egun bates esan noan amaë: "Ama", ta - "Zer da?" - "Zuk ee Fermin bieltzen dezu eskolaa ta ni batee ez-da". - "Bei, neskatoa, e... mutikoek eskol geyaö beiñe, neskatuëk beño, t'orregatik bieltzen diñau geyaö Fermin". Ta ni beti an soruen, beti soruen, ta izandu nitzen e... eskolik baeko jendiä. Bestenaz ee?... enitzen oso espabilatuba- d'ere, t'oso espabilatuba-d'ere beia, e... encima? eskolik ez; ta, egun batez, nik eztakit ze-eta? ka-kasue zan? meikubangana fan nitzen bentzet-ta. Zerbaitt e galdebidie-o in tzuten, ta, auskalduna da, meikuba, emen, emengua da, Iturmendikua. Ta, esan noan e, konfiantza guztie, konfianzas, ta, esan noon: "Antonino, nik? e... eztuzu siñestatuko beia, nee denbora guzien? iru illaateko egunek enittie-, enittien, enitzen fanko eskolaa, asieske ze eskol jakin biot nik?" Ixi-, ixi-ixille geldittu zan! ixillik... egiya da ta! egiya da ta oleitxe, ibiltzen giñen, geo faten giñen emendi... Bekobasua otsaitte dou or, Lizarrustia, Lizarrustira bakizö? oitaaño kasi faten giñen, orbeletaa... neguben, zu!... - Aitakin edo?

- Aittaaki, aittaaki; eta geixuok! izotza, itzugarrizko izotzak ta erleñuek eta, obenien, maten giñuen tapabokillen bat o ta-, oi, bu(r)uko pañeloon bat, ola, tapatuta fateko burubä, ta obenien burube ta guzia e izotza jarri(r)iken... bei, olako bizimodu et eman dau emen, trixtiak! ta orbela andik asite ekartzen giñuen bideji at orbel, een guzien bideji at orbel, faten giñan arutza.

- Egun guztian?

- Eun guzien? orbel-bideji at, bakarrik, pasatzen giñuen eguna, ta txarki. Geo, ganaduek ee? pues e... yote in tzian e, idiyek otsaitt(e) giñon, idiyek... eta yoten giñuzkien idiyek, ferraki, zengati idiyekin ibiltzen tzian gizonak - karrotue otsaitten doogu guk- baso-laniän, guai katxabe(n)-, katxarrokin ibiltzen dian bezela? emen, idiyeki ibiltzen tzian baso-lanetan, ta baso-lanian lan asko yooten tzan, baso-laniän, jendi asko lan, okupetzen tzan e... interbenittutzen tzan e... baso-lanien. Ta, faten giñen idiyeki eta ni gaztiä? gaztia? ta eztaki pa zenbat urte yonko nittuen, amiruen bet urteti amaloura o ola, idiyeki faten nitzenien, ta, itten tzian irrixtätu bideberriyen, irrixtatu, eta baztarrea sartzan zazkiten, ta gauz onik ezin in ibi-, idiyekin, negarres, gaztie ta negarres, ibiltzen nitzen, Etxarrin da, krutxe ori ezin pasatu, ta bakarren bat quartzen tzan? alako gizonen bat, geldiik-o ziona ta, quartzen tzian? da, launtzen tzuutien, hala! ni gaztie ta? gaztie ta, launtzen zutien, alai(k), pasatzen idiyek. Bea geo etortzekuen atzea beis emen e, Askondo emen, otsaitten dogu, baxerri bet, ikus dezu emen? baxerri bet, eldu gala? Etxarritti aldi ontaa eldu gala baserri bet dago, Askondo; t'orti gua aldapa, eta aldapa artan de atzia beex ezin zian apietu, eta baztarria, baztarria ta baztarrea, ta oi!... egun betes izugarrizko apurue pasaazi nurien, sartu zazkiten e baztarria, oso baztarria iriyek, eta gizon bat zion e an, soruen, goitti, goyen, ta quartu zan neegana, nola na(b)illen e, negarrets ee garrätsis, ta etor tzan, etor tzan, da gizona gizon, sartu zan barre-idiyan pek aldia? ta: "Ekartze, ekartzazu, akilu oi, ekartzu ta akilu oi" -otsaitten giñon... makille, iriyei jotzeko- eta "Ekartzu t'akillu oi, ikusko zu nik nola... ateako ittuten, ateako ittuten", bestena itzuli in be zuutien idiyek. Negati nei zuena itten tzuen... olako bizi mat emate-, ze-, zein txarki ibiltzen giñen, ooh!... egurretaa ta an askotan faten giñan arutza, goai emen bertan itten duzkigue, egurrek eta kontubek, bea len arutza bear izaten giñen, bee egurretaa ta guzia, ta olako bizimodu et ematen giñuen, bizi txarra, txarra, oso txarra. Ta oleixe, ta geyao ze kontatuko zkizut ta?

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Dorraoko San Juanetako ospakizunak (ERG-010/001)

Dorraoko San Juanetako ospakizunak. San Juan ermita.

2. Dorraon, Eguberrietan, etxez etxe eskean (ERG-010/002)

Eguberrietan etxez etxe eskean kantari ibiltzeko ohituraren inguruan hitz egiten dute.

3. Unanuko suan saltoka sugeen hozkak ekiditeko (ERG-011/001)

San Juan bezperan sua egiten zen eta "Urrin San Juan, ez piketzeko" esaten zuten, sugeek hozka ez egiteko.

4. Unanuko Eguberri aldia; eskean kantari aritzeko ohitura (ERG-011/002)

Gabonetan haurrak eskean ibiltzeko ohitura. Gero buztinezko eltzeak puskatzen zituzten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-01

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com